# Urteko 19. Igandea A

## 84. Salmoa

*L-A. 140 / S-A. 36*




**Erakuts guri zure betiko bihotz ona,**
**Salbamendua igor, Jauna.**

Huna zerutik Jaun zerukoa guri mintzo:
Bake dugula, bake dio;
Jainkozalentzat salbamendua zoin hurbil den,
Haren ospea gutaratzen.
Amodioak eta Egiak nola lehen
Dute munduan bat eginen.

Zuzentasuna eta bakea sekulako
Besarka dire juntatuko.
Egia zaio gure lurrari aterako,
Zuzentasuna zerutik so.

Ongi nasaia Jainkoak berak emanen du:
Jaunari esker lurrak fruitu.
Hak aitzinean zuzentasuna izanen du:
Doan bidean salbamendu.

Editions EzkilaTous droits réservés